

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2010KO OTSAILAREN 12KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO KURRIKULUAREN MAILAK EGIAZTATZEKO 2010EAN IZANGO DIREN DEIALDIETARAKO AZTERKETA BATZORDEAREN KIDEAK, LURRALDE-ARDURADUNAK ETA AUTONOMIA ERKIDEGORAKO MAILAZ MAILAKO KOORDINATZAILEAK IZENDATZEKO.

2003ko abuztuaren 6ko Kultura sailburuaren Agindu bidez, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan (HEOK)ezarritako euskararen ezagutza maila egiaztatzeke sistema zehaztu zen. Bertan ezartzen denez, maila egiaztatzeke ziurtagiriak lortzeke, maila bakoitzari dagokion azterketa gainditu beharko da.

Aginduaren 11 eta 12. artikuluen arabera, HABEk Azterketa Batzorde bat eratuko du maila egiaztatzeke azterketen inguruan hainbat lan egiteke, eta bere zuzendari nagusiak izendatuko ditu batzorde honen kideak eta beste zenbait arduradun eta laguntzaile. Aldi berean, Aginduaren Lehenengo Azken Xedapenaren babesean, HABEren zuzendari nagusiak, 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez, garatu du nola egitaratuko diren antolaketa eta kalifikazio lanak Azterketa Batzordearen zuzendaritzapean eratuko diren azpibatzoedeen bidez.

HABEren zuzendari nagusiaren 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenarekin HEOKan ezarritako Euskararen ezagutza maila egiaztatzeke aurtengo deialdiak abiatu dira. Horregatik, antolaketa eta didaktika aldeko lanak martxan jartzeko, Azterketa Batzordea osatu, eta lurralde-arduradunak eta Autonomia Erkidegorako mailaz mailako koordinatzaileak izendatu behar dira.

Beraz, aipatu dugun 2003ko abuztuaren 6ko Kultura sailburuaren Aginduak, 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenak eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidaten eskumenez, honako hau

EBATZI DUT:

1. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren mailak egiaztatzeke 2010ean izango diren deialdien Azterketa batzordekideak izendatzea:

- Presidentea: Joxe Joan González de Txabarri Miranda izendatzea, HABEren Didaktika zerbitzuburu denez.
- Batzordekideak:
 - o Aintzane Agirre Olaizola, euskaltegi publikoen ordezkaria.
 - o Carmen Rodríguez Núñez, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen ordezkaria.

